Sin./Fdo.: IDOYA GARAY TELLECHEA 2023-11-02
LURRALDE ANTOLAMENDURAKO ATALEKO BURUA
JEFE/A SECCIÓN DE ORDENACIÓN TERRITORIAL
Sin./Fdo.: JOSE MARIA BILBAO INCHAURRAGA 2023-11-02
LURRALDE KOHESIORAKO ZUZENDARIORDEA
SUBDIRECTOR/A DE COHESIÓN TERRITORIAL
Sin./Fdo.: AIMAR RICO RUIZ 2023-11-02
LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL
Sin./Fdo.: IMANOL PRADALES GIL - 2023-11-02
AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2023-11-09
GZko 27.gaia onartuta - Aprobado, asunto 27) de OD



**ERABAKIA,** Arratiako (Igorre) Lurralde Plan Partziala berrikusteko prozedura hasteko.

**ACUERDO,** de inicio del procedimiento de revisión del Plan Territorial Parcial de Arratia (Igorre).

## AURREKARIAK

EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen arabera (aurrerantzean, LAG), Arratia eremu funtzional gisa zehaztuta dago, eta, bertan, honako udalerri hauek sartzen dira: Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa y Zeanuri.

Arratiako Lurralde Plan Partziala (LPP) Eusko Jaurlaritzaren irailaren 14ko 239/2010 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko. Hura onartzen duen dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2010eko urriaren 25ean, haren antolamendu-arauekin batera.

Gainera, urtarrilaren 31ko 17/2023 Dekretuaren bidez behin betiko onetsi zen Arratiako eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren funtsezkoa ez bestelako aldaketa bat, paisaiaren zehaztapenei dagokiena.

Beste alde batetik, ekainaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez behin betiko onetsi ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (1997koen berrikuspenen ondoriozkoak). Dekretu horrek honako hau ezartzen du lehenengo xedapen iragankorrean: «Egun indarrean dauden lurralde-plan partzialak eta lurralde-plan sektorialak Dekretu honetan xedatutakora moldatuko dira indarrean sartu eta hurrengo zortzi urteetako epean.» Moldaketa

## ANTECEDENTES

El área funcional de Arratia queda definida por las Directrices de Ordenación Territorial de la CAPV (en adelante DOT), y comprende los municipios de: Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa y Zeanuri.

El Plan Territorial Parcial (PTP) de Arratia se aprobó definitivamente mediante Decreto del Gobierno Vasco 239/2010 de 14 de septiembre. El decreto de aprobación, junto con sus Normas de Ordenación, fue publicado en el Boletín Oficial del País Vasco de 25 de octubre de 2010.

Además, mediante Decreto 17/2023, de 31 de enero, se aprobó definitivamente la modificación no sustancial del Plan Territorial Parcial del área funcional de Arratia en lo relativo a las Determinaciones del Paisaje.

Por su parte, mediante Decreto 128/2019, de 30 de julio, se aprobaron definitivamente las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, revisión de las anteriores de 1997. La Disposición Transitoria primera del citado Decreto establece que: «Los Planes Territoriales Parciales y los Planes Territoriales Sectoriales vigentes en la actualidad, se adaptarán a lo dispuesto en el presente Decreto en el plazo de ocho años siguientes a su

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZI5-VT6D-3PO4-39K2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

horretarako, eremu funtzionaleko lurralde-plangintzan sartu behar dira LAGetako zehaztapen guztiak, eta batzuk berriak dira: hirigunearen hazkuntza-perimetroa, azpiegitura berdea eta zeharkako gai batzuk, esaterako klima-aldaketa, osasuna eta genero-ikuspegia.

2017an Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiak (gaur egun Lurralde Garapeneko Zuzendaritza Nagusia) Arratiako LPParen jarraipen-memoria egin zuen. 2017ko apirilean memoria hori Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari (EAELAB) bidali zitzaion, azter zezan. 2017an eremu funtziona horretako paisaiaren katalogoa egin zen. Dokumentu horiek oinarritzat hartu behar dira LPPa berrikusteko. Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrian jarri dira.

Halaber, 2019an onetsitako LAGetan ezartzen denari jarraikiz, Arratiako LPParen berrikuspenaren prozesuan ahalik parte-hartzaile gehien egon behar dira, aldi bakoitzeko inguruabarrek ematen duten aukera kontuan edukita.

Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 2ko 46/2020 Dekretuak 3. artikuluan zehazten duenez, lurralde- edo hirigintza-antolamenduko edozein figura formulatu, berrikusi edo aldatzeko hasierako erabakiarekin edo ebazpenarekin batera, parte hartzeko programa bat egin beharko da. Plan horretan, behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira, herritarrek eta elkarteek parte hartzeko eskubidea izan dezaten. Herritarrek parte hartzeko programa hau laburbilduta argitaratuko da, kasu honetan Bizkaiko Aldizkari Ofizialean; informazio-teknologia berrien bitartez hedatuko da, eta, parte hartzeko mekanismo hauek izango ditu, gutxienez: parte hartzeko gida bat, azalpenak emateko jendaurreko bilkurak, eta

entrada en vigor.» Esta adaptación supone incorporar al planeamiento territorial del área funcional todas las cuestiones que establecen las DOT, algunas novedosas como el perímetro de crecimiento urbano, la infraestructura verde o la incorporación de cuestiones transversales como el cambio climático, la salud o la perspectiva de género.

En 2017 la Dirección General de Cohesión del Territorio (actualmente Dirección General de Desarrollo Territorial) del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia elaboró una Memoria de Seguimiento del PTP de Arratia, que fue remitida en abril de 2017 a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco (COTPV) para su análisis. En 2017 se realizó el Catálogo del Paisaje del área funcional. Estos documentos, los cuales han de servir de génesis al proceso de Revisión, se encuentran en la página web de la Diputación Foral de Bizkaia.

Asimismo, en línea con lo señalado en las DOT aprobadas en 2019, se exige que la revisión del PTP de Arratia se realice en el marco de un proceso participativo lo más amplio posible, teniendo en cuenta las circunstancias en las que se posibilite la forma de hacerlo en cada momento.

El Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística, señala en su artículo 3 que el acuerdo o resolución de inicio de la formulación, revisión o modificación de cualquier figura de ordenación territorial o de ordenación urbanística estructural deberá estar acompañado de un programa de participación en el que se establecerán los objetivos, estrategias y mecanismos suficientes para posibilitar el derecho a participar de la ciudadanía y entidades asociativas. Este programa de participación ciudadana se publicará resumidamente, en este caso, en el Boletín Oficial de Bizkaia; se divulgará a través de las nuevas tecnologías de la información, y contendrá como mínimo una guía

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZI5-VT6D-3PO4-39K2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

prestatu beharreko dibulgazio-materiala.

de participación, la previsión de sesiones abiertas al público explicativas, así como material divulgativo que deberá prepararse.

Arratiako Lurralde Plan Partziala izapidetzeko prozedura hauekin bat etorriz egin behar da, 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduari buruzkoa, 13. artikulua; 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena, 13.1 eta 3.1 artikuluak.

El proceso de tramitación sustantiva del Plan Territorial Parcial de Arratia se habrá de realizar de conformidad con el artículo 13 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, así como en los artículos 13.1 y 3.1 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.

Hori guztia dela eta, aipatutako aurrekariak kontuan hartuta, eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenaz baliatuz, Bizkaiko Foru Aldundiari Foru Erabakiaren proposamen hau bidali diogu, horren gaineko irizpena eman dezan.

Por todo lo cual, vistos los antecedentes mencionados, y en ejercicio de la competencia contemplada en el artículo 13 de Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, se propone someter a la consideración de la Diputación Foral de Bizkaia la siguiente propuesta de

FORU ERABAKIA

**Lehenengoa.–** Arratiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala, irailaren 14ko 239/2010 Dekretuaren bidez onetsia, berrikusteko prozedura hastea, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak 13. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz.

**Bigarrena.–** Erabaki honen eranskin gisa atxikitzea Lurralde Plan Partzialaren berrikuspenean herritarrek parte hartzeko programaren laburpena. Hori lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikuluan aipatzen da.

**Hirugarrena.**– Eusko Jaurlaritzako sailei, Estatuko Administrazioari eta eremu funtzionaleko udal guztiei eskatzea Arratiako LPPa idazteko beharrezkotzat jotzen duten informazio orokor guztia eta, gainera, eremu horretako zehaztapenei eta programei dagokien informazio berezia ere bai,

ACUERDO FORAL

**Primero.–** Iniciar el procedimiento de revisión del Plan Territorial Parcial (PTP) del área funcional de Arratia, aprobado por Decreto 239/2010 de 14 de septiembre, de acuerdo con lo establecido en el artículo 13 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco.

**Segundo.–** Adjuntar, como anexo al presente Acuerdo, el resumen del Programa de Participación Ciudadana de la revisión del PTP al que hace referencia el artículo 3 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.

**Tercero.**– Recabar de los departamentos del Gobierno Vasco, de la Administración del Estado y de todos los municipios integrantes del área funcional, toda la información general que consideren necesaria para la redacción del PTP de Arratia así como la específica que se refiera a sus

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZI5-VT6D-3PO4-39K2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13. artikuluaren 2. apartatuan eta lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 13. artikuluan 2. apartatuan ezartzen denarekin bat etorriz. Informazio hori bi hilabete igaro baino lehen igorri behar da.

**Laugarrena**.– Agintzea foru erabaki hau (herritarrek parte hartzeko programaren laburpena atxikita) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Lurralde Historiko gehien saltzen diren egunkarietako bitan argitaratzeko, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrian ere bai.

previsiones y programas relativos a la zona afectada, de acuerdo con lo señalado en el apartado 2 del artículo 13 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de ordenación del territorio del País Vasco y en el apartado 2 del artículo 13 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística. Dicha información se suministrará en el plazo de dos meses.

**Cuarto**.– Ordenar la publicación del presente Acuerdo Foral, acompañado del resumen del Programa de Participación Ciudadana, en el Boletín Oficial de Bizkaia, en el Boletín Oficial del País Vasco, y en dos periódicos de los de mayor circulación en el Territorio Histórico de Bizkaia así como en la página Web de la Diputación Foral de Bizkaia.

Lurralde Antolamendurako Ataleko burua / Jefa de Sección de Ordenación Territorial. IDOIA GARAY TELLECHEA
Lurralde Kohesiorako Zuzendariorde Nagusia/ Subdirector de Cohesión Territorial. JOSE MARIA BILBAO INCHAURRAGA

O.E. /Vº Bº

Lurralde Garapenerako Zuzendari Nagusia / Director General de Desarrollo Territorial. AIMAR RICO RUIZ

**Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio. /De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno**.

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru Diputatua / El Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial. IMANOL PRADALES GIL

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZI5-VT6D-3PO4-39K2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ERANSKINA

ANEXO

HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA - LABURPENA

PROGRAMA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA - RESUMEN

1. Ikuspegia

1. Enfoque

Lurralde-plangintzari buruzko araudiaren arabera, plangintza proposatu edo aldatzeko garaian nahitaezkoa da partaidetza-prozesuak antolatzea eta gauzatzea. Hori, plangintza interesatzen zaien eta/edo plangintzak eragiten dieten pertsona eta agenteek beren lehentasunak helarazteko aukera dutela ziurtatzeko. Horrela dago jasoa lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikuluan.

Orain laburbilduko dugun prozesuak Arratiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala berrikusteko partaidetza-betekizunak betetzen ditu, elkarrekintza hori gauzatzeko baldintzak eta testuingurua finkatzen ditu eta askotariko jendeari hobeto egokitzeko erabili behar diren partaidetza- eta hedapen-tresnak zehazten ditu.

Partaidetza-prozesua egituratzeko, araudiaz gain honako hau erabili dugu, nagusiki: Bizkaiko Foru Aldundiaren Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako 2020-2023 Foru Plana. Plan horrek pertsona eta kolektibo guztiak entzuteko eta plangintza eta foru-arau

La normativa sobre planificación territorial establece la obligatoriedad de desarrollar procesos participativos a la hora de proponer o modificar el planeamiento, con el objetivo de garantizar que todas las personas y agentes con interés y/o afección cuentan con la oportunidad de trasladar sus preferencias. Así se indica en el artículo 3 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.

El proceso que se resume a continuación da cumplimiento a los requerimientos de participación para la revisión del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Arratia, fija las condiciones y el contexto en el que desarrollar esta interacción y detalla las herramientas de participación y difusión a emplear para su mejor adaptación a los distintos públicos.

Además de la normativa, la principal referencia empleada para estructurar el proceso participativo ha sido el “Plan Foral de Participación Ciudadana y Social 2020-2023” de la Diputación de Bizkaia, que establece fórmulas para escuchar a todas las personas y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZI5-VT6D-3PO4-39K2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

guztietan akordio zabalak adosteko formulak ezartzen ditu.

colectivos y construir consensos amplios en todas las planificaciones y normas forales.

## 2. Prozesuaren helburu orokorrak

Herritarren parte-hartzearen azken helburua da **Arratiako LPP berrikusten laguntzea**, adostasunak eraikiz eta osagarritasunak identifikatuz, lurralde-plan bat lortzeko, etorkizuneko planak inplikatutako eta eragindako pertsona guztien beharrei neurri handiagoan erantzuteko eta asetzeko: udalerrietako tokiko herritartasuna, elkarte-sarea, sare ekonomikoa, tokiko administrazioak, etab.

Horretarako, partaidetzaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Arratiako Eremu Funtzionalerako eta Bizkairako interesgarria den gai bati heltzea ahalbidetuko duen **parte-hartze prozesu bat diseinatu eta garatzea,** hain zuzen ere, Lurralde Plan Partziala.
- Arratiako LPPk lantzen dituen gai eta kontu giltzarriei buruzko **informazioa eta gaikuntza ematea** herritarrei eta parte hartzen duten eragileei. Bai informatuta egon nahi duten pertsonei, bai parte hartu eta ekarpenak egin nahi dituztenei.
- Ahalik eta pertsona gehienek, eragile sozial, kultural eta ekonomikoek, profesionalek, auzotarrek, elkartekideek eta elkartekide ez direnek **benetan eta eraginkortasunez parte har dezaten** ahalbidetzea. Ekintzen aniztasunari esker, Arratiako beharrizanak eta aukerak hausnartu, eztabaidatu, kontrastatu eta zehaztu ahal izango dira.
- **Arratiako LPPari laguntzea**, adostasun kolektibo handiagoko proposamen eta ekarpenen bidez, herritarren ikuspuntu tekniko-politikoa zabalduz,

## 2. Objetivos generales del proceso

El objetivo último de la participación ciudadana es **contribuir a la revisión del PTP de Arratia,** construyendo consensos e identificando complementariedades para lograr un plan territorial que responda y satisfaga en mayor medida las necesidades de todas las personas implicadas y afectadas por el futuro plan: ciudadanía local de los diferentes municipios, tejido asociativo, tejido económico, administraciones locales, etc.

Para ello, los objetivos concretos de la participación son los siguientes:

- **Diseñar y desarrollar un proceso de participación** que permita abordar un tema de interés para el Área Funcional de Arratia y para Bizkaia, como es el Plan Territorial Parcial.
- **Informar y capacitar a** la ciudadanía y agentes participantes acerca de los temas y cuestiones clave que aborda el PTP de Arratia. Tanto a aquellas personas que tan solo deseen estar informadas como a quienes deseen participar y realizar aportaciones.
- **Facilitar una participación real y efectiva** de la mayor cantidad y diversidad de personas; agentes sociales, culturales y económicos; profesionales; personas vecinas, asociadas y no asociadas. La diversidad de acciones permitirá reflexionar, deliberar, contrastar y matizar las necesidades y oportunidades en Arratia.
- **Contribuir al PTP de Arratia** mediante propuestas y aportaciones con un mayor grado de consenso colectivo, ampliando el punto de vista técnico-político con el de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZI5-VT6D-3PO4-39K2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

esperientziazkoagoa, kolektibo eta adin desberdinak barne, eduki tekniko hutsa aberastuz lurralde-proiektu honetan beharrezkoak diren beste ikuspegi batzuekin.

## 3. Partaidetzaren printzipioak

Partaidetza foru-administrazioen funtzionamenduan onartuta eta integratuta dagoen printzipio bat da. Lurralde Plan Partzialean interesa duten pertsona eta agente guztiek erabakiak hartzerakoan eragina izan dezaten ziurtatzeko, partaidetza-prozesu koherente bat planteatu da, balio hauek dituena:

• **Gobernantza.** Administrazioen eta kudeaketa publikoko prozesuen funtzionamendua hobetzeko tresna bat da. Sareak sortuz, modu aktiboan entzunez, herritarrekin harremanak izanez eta interes-taldeen bitartez, administrazioa eraginkorragoa eta efizienteagoa izatea lortzen da.

• **Adostasuna.** Partaidetza-prozesuek alderdi asko ados jartzea lortu behar dute, ahal duten neurrian. Horregatik, elkarrekin eraikitzeko dinamika eta saioak antolatu behar dira.

• **Gardentasuna.** Administrazioak jasotako ekarpenen zenbaterainokoaren eta tratamenduaren berri hasiera-hasieratik emango da.

• **Inklusioa.** Pertsona guztiek prozesuari buruzko informazioa jasotzea eta, proposamenak egin ditzaten, haiei egokitutako partaidetza-kanalak izatea ziurtatuko da, pertsona horien ezaugarriak, gaitasunak eta egoera edozein direla.

ciudadanía, más experiencial, incluyendo diferentes colectivos y edades, enriqueciendo el contenido puramente técnico con otras visiones necesarias en este proyecto de territorio.

## 3. Principios de la participación

La participación constituye un principio asumido e incardinado en el funcionamiento de las administraciones forales. Desde el objetivo de garantizar la influencia en la toma de decisiones de todas las personas y agentes con interés en el Plan Territorial Parcial, se plantea un proceso participativo coherente con los siguientes valores:

• **Gobernanza**: esta una herramienta para mejorar el funcionamiento democrático de las administraciones y los procesos de gestión pública. A través de la generación de redes, la escucha activa, el intercambio con la ciudadanía y los grupos de interés, se consigue una administración más eficaz y eficiente.

• **Consenso**: el proceso participativo debe generar en la medida de lo posible puntos de acuerdo multilaterales. Por ello, se deben habilitar dinámicas y sesiones de construcción colectiva

• **Transparencia**: se comunicará desde el primer momento el alcance y el tratamiento que recibirán las aportaciones recibidas por parte de la administración.

• **Inclusión**: se garantizará que todas las personas, independientemente de sus condiciones, capacidades y situaciones, reciban información sobre el proceso y cuenten con canales de participación adaptados a sus necesidades para formular propuestas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZI5-VT6D-3PO4-39K2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

## 4. Parte hartzeko mekanismoak

Herritarren Partaidetzarako Programa honek komunikazio- eta pedagogia-mekanismo edo -ekintza hauek inplementatzea aurreikusten du, bai eta adostasun- eta adostasun-mekanismo hauek ere:

KOMUNIKAZIO-EKINTZAK:

- Hasierako komunikazio-materiala.
- Parte hartzeko gida.
- Webgune espezifikoa.
- Webgunea eguneratzea eta mantentzea.
- Laburpen-aurkezpena.
- Azalpen-materialak.
- Komunikazio orokorra (prentsa-oharrak, sare sozialak).

EKINTZA PEDAGOGIKOAK:

- Dibulgazio-materiala.
- Informazio-hitzaldiak.

ADOSTASUNA HITZARTZEKO ETA ERAIKITZEKO EKINTZAK :

- Kontsultak/kontsulta-plana.
- Bilerak tokiko administrazioekin.
- Elkarteei egindako elkarrizketak.
- Herritarren postontzia (digitala).
- Bilerak elkarteekin/herritarrekin.
- Online galdetegia – parte-hartze digitala.

## 5. Euskara

Komunikazio-material guztia eta parte-hartzearen dinamizazioa hizkuntza inklusibo

## 4. Mecanismos participativos

El presente Programa de Participación Ciudadana prevé la implementación de los siguientes mecanismos o acciones de tipo comunicativo, pedagógico y de concertación y construcción de consenso:

ACCIONES COMUNICATIVAS:

- Material de comunicación inicial.
- Guía de participación.
- Página web específica.
- Actualización y mantenimiento de la web.
- Presentación resumen.
- Materiales explicativos.
- Comunicación general (notas de prensa, redes sociales).

ACCIONES PEDAGÓGICAS:

- Material divulgativo.
- Charlas informativas.

ACCIONES DE CONCERTACIÓN Y CONSTRUCCIÓN DE CONSENSO:

- Consultas / plan de consultas.
- Reuniones con administraciones locales.
- Entrevistas a asociaciones.
- Buzón ciudadano (digital).
- Sesiones con asociaciones/ ciudadanía.
- Cuestionario online – participación digital.

## 5. Euskera

Todo el material de comunicación y la dinamización de la participación se realizará

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZI5-VT6D-3PO4-39K2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eta ez-sexistaren tratamendu egokia bermatuz egingo da, indarreko xedapenen eta araudiaren arabera, bai eta elebiduna ere, euskaraz eta gaztelaniaz, EAEko hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren arabera.

garantizando el adecuado tratamiento del lenguaje inclusivo y no sexista conforme a las disposiciones y normativa vigente, así como bilingüe, en euskera y castellano, conforme la doble oficialidad lingüística de la CAPV.

Herritarrei zuzendutako argitalpen, ohar, jakinarazpen edo bestelako idazki guztietan bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira, eta euskarari lehentasuna emango zaio letraren tamainarekin, lodierarekin edo kolorearekin, edo testuaren kokapenarekin. Era berean, saio publiko guztietan euskaraz eta gaztelaniaz parte hartu ahal izango da.

En todas las publicaciones, notas, notificaciones o cualquier otro tipo de escrito dirigido a la ciudadanía se utilizarán ambos idiomas oficiales, dando prioridad al euskera con el tamaño, grosor o color de letra, o con la ubicación del texto. A su vez, en todas las sesiones públicas se podrá participar en euskera como en castellano.

## 6. Genero-ikuspegia

Arratiako LPPren partaidetzak genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna txertatzeko irizpide eta ekintza hauek hartuko ditu kontuan:

1. LPPren parte-hartzean genero-ikuspegiko edukiak berariaz txertatzea, eta hainbat gai jorratzea, hala nola irisgarritasuna, zaintza, kontziliazioa, segurtasuna, berdintasunezko irudikapen sinbolikoa, etab.
2. Hizkuntzaren erabilera inklusiboa eta ez-sexista egitea sortzen diren material guztietan.
3. Datuak sexuaren arabera bereiztea parte-hartzearen jarraipenean eta ebaluazioan pertsonei buruz sortzen den edozein estatistikatan.
4. Parte-hartzaileak uztartzeko neurriak erraztea, hala nola:
   a. Informazio- eta partaidetza-saioetara haurren ardurapeko pertsonak joateko

## 6. Perspectiva de género

La participación del PTP de Arratia tendrá en cuenta los siguientes criterios y acciones de inclusión de la perspectiva de género y de igualdad entre mujeres y hombres:

1. Integrar contenidos de perspectiva de género en la participación del PTP de manera específica, tratando temáticas como la accesibilidad, los cuidados, la conciliación, la seguridad, la representación simbólica igualitaria, etc.
2. Hacer un uso inclusivo y no sexista del lenguaje en todos los materiales que se generen.
3. Desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que se genere en el seguimiento y evaluación de la participación.
4. Facilitar medidas para la conciliación de las personas participantes, como:
   a. La posibilidad de que a las sesiones informativas y participativas asistan

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZI5-VT6D-3PO4-39K2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aukera, parte hartzeko dinamika egokiak diseinatuz.

b. Aukera horren berri ematea, adingabeak beren kargura dituztenak bertaratzera anima daitezen. Karteletan eta komunikazio-materialetan, hala nola prentsa-oharretan, web-ean eta udal-sare sozialetan, etab.
c. Parte-hartze digitala presentzialaren osagarri gisa, pertsona bakoitzak parte hartu nahi duen uneari buruzko malgutasun handiagoa ahalbidetzen baitu.

personas a cargo de niñas y niños, diseñando dinámicas de participación adecuadas para ello.
b. Comunicación de dicha posibilidad, para que quienes tengan menores a su cargo se animen a asistir. En los carteles y materiales de comunicación como notas de prensa, web y RRSS municipales, etc.

c. Participación digital como complemento a la presencial, que permite una mayor flexibilidad sobre el momento en que cada persona quiera participar.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikuluaren babesean, 2. eta 3. puntuak. Horietan, errespetatu beharreko printzipio orokorrak adierazten dira (tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna, aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetua, genero-ikuspegiaren integrazioa, ekintza positiboa, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea, ordezkaritza orekatua eta lankidetza eta koordinazioa).

Los puntos 2 y 3, al amparo del artículo 2.3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse (igualdad de trato, igualdad de oportunidades, respeto a la diversidad y a la diferencia, integración de la perspectiva de género, acción positiva, eliminación de roles y estereotipos en función del sexo, representación equilibrada y colaboración y coordinación).

## 7. Prozesuaren faseak eta egutegia

## 7. Fases del proceso y esquema temporal

Parte hartzeko ekintzak LPPren hurrengo faseetan integratzen dira, beharrezko prestakuntza- eta ebaluazio-zereginekin batera. 1. fasetik 3. faserako partaidetza **10 hilabeteko** epean planteatzen da, hasi zenetik, honela banatuta:

Las diferentes acciones de participación se integran en las siguientes fases del PTP, junto con las tareas de preparación y evaluación necesarias. La participación de la Fase 1 a la Fase 3 se plantea en **un plazo total de 10 meses** desde su inicio, distribuido de la siguiente forma:

**1. fasea. Informazioa eta diagnostikoa.** (1etik 3ra bitarteko hilabeteak).

- Herritarren Partaidetzarako Programa (HPP).
- Komunikazio-materialak.
- Parte hartzeko gida.

**Fase 1. Información y diagnóstico.** (meses 1 a 3).

- Programa de Participación Ciudadana (PPC).
- Materiales de comunicación.
- Guía de participación.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZI5-VT6D-3PO4-39K2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Web orria.
- Bilerak udalekin.
- Informazio-hitzaldia
- Elkarteei eta/edo herritarrei egindako elkarrizketak.
- Kontsulta-plana.
- Fase honetako parte-hartzearen jarraipena eta ebaluazioa.

- Página web.
- Reuniones con los Ayuntamientos.
- Charla informativa.
- Entrevistas a asociaciones y/o ciudadanía
- Plan de consultas.
- Seguimiento y evaluación de la participación en esta fase.

2. fasea. Aurrerakina eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa (HDE) idaztea.
(4. hilabetetik 8.era).

- Ekintzetarako edukiak eta materialak prestatzea.
- Komunikazioa: web orriaren eguneratzea, prentsa-oharrak, sare sozialak.
- Informazio-hitzaldia: diagnostikoaren emaitzak.
- Herritarren postontzia.
- Fase honetako parte-hartzearen jarraipena eta ebaluazioa.
- Aurrerakina azaltzeko materiala (bideoa, erakusketa edo antzekoa) 3. Faserako.

Fase 2. Redacción del Avance y del Documento Inicial Estratégico (DIE).
(mes 4 a 8).

- Preparación de contenidos y materiales para las acciones.
- Comunicación: actualización de la página web, notas de prensa, redes sociales.
- Charla informativa: resultados del diagnóstico.
- Buzón ciudadano.
- Seguimiento y evaluación de la participación en esta fase.
- Material explicativo del Avance (vídeo, exposición o similar) para la Fase 3.

3. fasea. Aurrerakinaren eta HDEren tramitazioa eta parte-hartzea .

(9. eta 10. hilabeteak).

- Komunikazioa: gaur egun. web orria, prentsa-oharrak, sare sozialak, mailing.
- Informazio-hitzaldiak (LPPren edukia).
- Elkarteekin eta/edo herritarrekin egindako saioak.
- Herritarren postontzia
- Galdetegi digitala.
- Aurrerakinari buruzko iradokizunak aurkeztea.
- Fase honetako parte-hartzearen jarraipena eta ebaluazioa.
- Parte-hartzeari buruzko txostena (1etik 3rako faseak).
- Aurrerakinari buruzko iradokizunen txostena.
- Arratiako LPPren azken laburpenaren aurkezpena.

Fase 3. Tramitación y participación del Avance y del DIE.

(meses 9 y 10).

- Comunicación: actual. página web, notas de prensa, redes sociales, mailing.
- Charlas informativas (contenido del PTP).
- Sesiones con asociaciones y/o ciudadanía.
- Buzón ciudadano.
- Cuestionario digital.
- Presentación de sugerencias al Avance.
- Seguimiento y evaluación de la participación en esta fase.
- Informe de participación (Fases 1 a 3).
- Informe de sugerencias al Avance.
- Presentación de síntesis final del PTP de Arratia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZI5-VT6D-3PO4-39K2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus